

**2007ko UZTAILAREN 5ean LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
OSPATUTAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2007ko uztailaren 5ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea
Karlos Irazu Muñoa

Bere ezin etorria adierazi du:

Iñigo Aginalde Lertxundi

IDAZKARIA: M^a Eugenia Muñoa Irureta

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarreko aktak onestu, hala badagokio:
 - 2007ko ekainaren 16an ospatutako bilkura berezia.
 - 2007ko ekainaren 21eko ez-ohiko bilkura.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. 2006 ekitaldiko kontu orokorrari hasierako onespena ematea.
4. Larraulgo irisgarritasun plana onartzea, hala badagokio.
5. Larraulgo AA.SS-etako 1.1. exekuzio unitateko garaje jarduera baimena ematea, hala badagokio.
6. I. A. O. jaunak aurkeztutako eskaera aztertzea.
7. Urbeltz auzoa XXko ezkutuko lanak direla-eta irekitako zehapen espedientea aztertzea.
8. Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L. baltzuak tarteratutako berraztertze elegitea aztertzea.
9. 2006-2007 ikasturtean musika ikastaroak burutu dituztenei dirulaguntzak ematea.
10. Eskualde mailako jarduera ekonomikoetarako urbanizatzeko eta sustapen publikorako lurzorua eskuratzeko hitzarmena onartzea.

11. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak edateko ura hornitzeko sareak hobetzeko proiektuak egiteko dirulaguntzak arautzen dituen aginduaren berri ematea.
12. Fakturak eta ordainketak.
13. Beste batzuk.
14. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

Bilkura 20.45 orduak direnean hasi da.

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADAGAKIO.

- ▣ 2007 urteko ekainaren 16ko Udalbatza bereziaren akta. Irakurri ondoren beratartuek aho batez onestu dute.
- ▣ 2007 urteko ekainaren 21eko Ez-Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

16/07 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 19koa, haur jolasen egunaren ondorioz sortutako fakturak 71,29 euroko kopurua dutenak onartzea erabakitzen duena.

17/2007 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 21ekoa, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 12.930,07 euroko diru ekarpena egitea onartzen duena.

18/2007 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 3koa, Larraul Erdiguneko Beobide Gain 20 zenbakian udal lizentzia gabe egiten ari diren obrak gelditzea erabakitzen duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

2006 EKITALDIKO KONTU OROKORRARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA.

Kontuen Batzorde Bereziak 2006 ekitaldiko Larraulgo Kontu Orokorra aurkezten da.

Gaia aztertutik Udaltzarrak aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, bere 63 artikuluan xedaturikoari jarraituz 2006 ekitaldiari dagokion Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra, hamabost lan-egunez jendeaurrean jartzea, dagokion iragarkia GAOn eta Udaleko Iragarki Taulan argitaratuz, edonork dokumentazioa aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzan.

BIGARRENA.- Jasotako erreklamazio eta iradokizunekin batera, Kontu Orokorra Udaltzarrari igorri, aztertu eta egoki baderitzo onar dezan.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO IRISGARRITASUN PLANA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik E. E. B. Arkitektu andreak 2007ko apirilko datarekin udalerriko Irisgarritasun Plan aurkeztu duela.

Gaia aztertu ondoren bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- E. E. B. A. aurkeztu duen Larraulgo Irisgarritasun Plana onartzea.

BOSGARREN PUNTOA

LARRAULGO AA.SS-ETAKO 1.1. EXEKUZIO UNITATEKO GARAJE JARDUERA BAIMENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.

Ikusirik 2007ko maiatzaren 22an R. R. jaunak Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L baltzuaren izenean Larraulgo AA.SS-etako 1.1 exekuzio unitateko 1.1 eta 1.2 partzeletarako garaje jarduera baimena eskatu zuela. Eskaerarekin batera Joleba Proyecto, S.L. baltzuak idatziriko jarduera proiektua aurkezten du Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialak sinatua.

Ikusirik eskatutako jarduera, 165/1999 Dekretuan xedatutakoaren arabera Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Legean jasotzen den jarduera lizentzia eskuratzetik salbuetsita dagoela.

Ikusirik aipatu Dekretuak 3. Artikuluan araututakoaren arabera inguruko bizilagunei jakinarazpen pertsonala egin zitzaiela hamar laneguneko epea emanaz zegozkion oharrak tarteratzeko eta era berean iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela 2007ko ekainaren hamabostean eta ez dela inolako ohar zein iradokizunik jaso.

Ikusirik Udaleko Aholkularia den E. E. B. arkitektuak luzaturiko aldeko txostena.

Gaia azterturik, bertaratuek

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L baltzuari Larraulgo AA.SS-etako 1.1 exekuzio unitateko 1.1 eta 1.2. partzeletarako garaje jarduera baimena ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

SEIGARREN PUNTOA

I. A. O. JAUNAK AURKEZTUTAKO ESKAERA AZTERTZEA

Ikusirik I. A. O. jaunak, Larraulgo lur hiritargarriko 3.1 unidateko Beobidegain 17 eskuinean duen etxebizitzari portxe bat atxikitzeo aukerei buruzko kontsulta urbanistikoa egin duela.

Ikusirik 2007ko uztailaren 3an Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andereak luzaturiko txostena non ondorengo adierazten duen:

3.1 lursaila Larraulgo lur hiritargarriaren barruan dago. Bereziki, Larraulgo "C" dokumentuko A.I.U.3 U.-L., fitxan azaltzen da lursail honi dagokion araudia.

Fitxa honetan lursail bakoitzaren okupazioa eta unidatearen eraikigarritasuna finkatzen dira:

3.1 unidatearen eraikigarritasuna partzela bakoitzeko (hau da eraikin bakoitzeko) 336m²-koa da.

Etxebizitzaren "egiteko proiektuaren" arabera, gaur egungo partzela bakoitzaren eraikigarritasuna 336,37 m²-koa da, beraz agortua gelditu da jadanik.

Ikusitako zenbakiak eta eraikigarritasunaren konputoaren araudia ikusirik, portxe bat egiteko aukera ez dagoela informatzen dut.

Gaia azterturik, bertaratuek aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- I. A. O. jaunari Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B andreak luzaturiko txostenean dioenaren arabera erantzutea, hots, B. XX eskuina den etxebizitzari portxe bat atxikitzeko aukerarik ez dagoela.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

ZAZPIGARREN PUNTOA

U. AUZOA XX-KO EZKUTUKO LANAK DIRELA-ETA IREKITAKO ZEHAPEN ESPEDIENTEA AZTERTZEA.

Ikusirik 2007ko apirilaren 3an espedientea hasi zela A. V. T. jaunak Larraulgo U. auzoko XX zenbakiko etxebizitzan udal lizentziarik gabe egin zituen lanak zirela-eta.

Ikusirik 2007ko uztailaren 5ean lan hauek legeztatzeako proiektua aurkeztu duela.

Ikusirik nahiz eta Euskal Herriko 2/2006 lurzorua legeak hilabeteko epea aurreikusten duela proiektua aurkeztu eta lanak legeztatzeako, zentzuzkoa dirudiela egin diren lanak legeztarriak diren aztertzea.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- A. V. T. jaunak Larraulgo U. auzoa XXan eginiko lanak legeztatzeako aurkeztu duen proiektua Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andreari helaraztea dagokion txostena luzatu dezan.

BIGARRENA.- Idazkari andreari zehapen izapidetza irekitzeko aukerak aztertzeako eskatzea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTOA

GESTION Y DESARROLLO GOIARGI, S.L. BALTZUAK TARTERATUTAKO BERRAZTERTZE ELEGITEA AZTERTZEA.

Ikusirik Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L. baltzuak berraztertzeo errekurtsua aurkeztu duela Udal honek 2006 urteko ekainaren 1ean, Larraugo AA.SS-etako A.I.U. 1, A.I.U. 2, A.I.U.3 eta A.I.U.4 exekuzio unitatentzako Transformazio zentrua eraikitzeagatik Obra, Instalakuntza eta Eraikuntzaren gaineko zerga kitapenaren aurka.

Ikusirik Obra, Instalakuntza eta eraikuntzen gaineko zerga Toki ogasunen legeak 101 eta hurrengo artikuluetan eta 15/1989, Foru Araua uztailaren 5ekoan araututa datorrela eta Larraulgo Udalak 2006 urterako onartutako ordenantza fiskaletan aurreikusitako zerga bat dela.

Ikusirik 1976ko estatuko lurzoruaaren legeak 15 eta 122.1 artikuluetan eta Plangintza erregelamenduak 67 eta 70 artikuluetan xedatutakoari jarraiki urbanizazio proiektuetan sartu beharreko urbanizazio lanen artean argi hornidura banaketarako sarea aurkitzen dela, eta eskatutako lizentzia hori bermatzeko obra bat egikaritzeko dela.

Ikusirik jurusprudentziak Obra, Instalakuntza eta Eraikuntzen gaineko Egitate Zergarria arautzerakoan adierazi duela ez direla zerga honi lotuta egongo Udalak onartutako urbanizazio proiektuak.

Bertaratuek, gaia eztabaidatu ondoren

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L baltzuak tarteratutako berraztertze errekurtsua onartzea eta ondorioz 2006 urteko ekainaren 1ean, Larraugo AA.SS-etako A.I.U. 1, A.I.U. 2, A.I.U.3 eta A.I.U.4 exekuzio unitateentzako Transformazio zentrua eraikitzeagatik Obra, Instalakuntza eta Eraikuntzaren gaineko zerga kitapena deuseza deklaratzeko.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea

BEDERATZIGARREN PUNTOA

2006-2007 IKASTURTEAN MUSIKA IKASTAROAK BURUTU DITUZTENEI DIRULAGUNTZAK EMATEA.

Ikusirik 2006-2007 ikasturterako musika ikastaroak burutzeko Larraulgo Udalak dirulaguntzak ematea erabaki zuela.

Ikusirik erabaki honen babesean ondorengo eskaerak aurkeztu direla:

IZEN ABIZENAK	JARDUERA	AURREKONTUA
M. E.	MUSIKA	573,76 €
P. A.	MUSIKA	900,00 €
A. D.	MUSIKA	288,00 €
I. O.	MUSIKA	288,00 €
G. O.	MUSIKA	288,00 €
I. J.	MUSIKA	288,00 €
X. O.	MUSIKA	288,00 €
L. A.	MUSIKA	288,00 €
A. U.	MUSIKA	225,00 €
N. U.	MUSIKA	225,00 €
A. U.	MUSIKA	225,00 €
I. U.	MUSIKA	225,00 €

Gaia azterturik bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aurkeztu diren eskaerak ikusirik ondoren aipatzen den bezala esleitzea burutu diren 2006-2007 ikasturteko musika jarduerak eta berauen ordainketa burutzea.

IZEN ABIZENAK	AURREKONTUA	DIRULAGUNTZA
M. E.	573,76 €	286,88 €
P. A.	900,00 €	450,00 €
A. D.	288,00 €	144,00 €
I. O.	288,00 €	144,00 €
G. O.	288,00 €	144,00 €
I. J.	288,00 €	144,00 €
X. O.	288,00 €	144,00 €
L. A.	288,00 €	144,00 €
A. U.	225,00 €	112,50 €
N. U.	225,00 €	112,50 €
A. U.	225,00 €	112,50 €
I. U.	225,00 €	112,50 €

BIGARRENA.- 2007ko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea.

HAMARGARREN PUNTOA

ESKUALDE MAILAKO JARDUERA EKONOMIKOETARAKO URBANIZATZEKO ETA SUSTAPEN PUBLIKORAKO LURZORUAK ESKURATZEKO HITZARMENA ONARTZEA.

Ikusirik Tolosaldea Garatzen, S.A baltzuak “Eskualde mailako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren sustapenerako hitzarmena” bidali zuela bere helburua eskualde mailan, lurzoruaren okupazio eragingarriagoa, arrazoizkoagoa eta iraunkorragoa bultzatzea eta zehazki, urbanizazioko eta ekonomiako jardueretarako lurzoria eskuratzea, eta lur horiek bultzatzea guztientzat komuna den ikuspuntuan, jarduera industriala eta komertziala sustatzeko asmoz eta etorkizunean atxiki daitezkeen udalen eta aldierrdien eskubideak eta betebeharrak zehaztea eta funtzionamendurako arau osagarria xedatzea.

Ikusirik 2007ko maiatzaren 24an ospatutako udalbatzan gaia mahai gainean gelditu zela Udal zergen banaketari zegokion puntua ez zelako oso argi ikusten.

Ikusirik gaia argitu dela, bertaratuek eztabaidatu ondoren, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Eskualde mailako jarduera ekonomikoetarako urbanizatzeko eta sustapen publikorako lurzoruak eskuratzeko hitzarmena onartzea.

BIGARRENA.- Alkate-Lehendakaria den Xabier Mujika Pagola ahalmentzea aipatu hitzarmena sinatzeko.

HAMAIKAGARREN PUNTOA

EUSKO JAURLARITZAKO INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILAK EDATEKO URA HORNITZEKO SAREAK HOBETZEKO PROIEKTUAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN AGINDUAREN BERRI EMATEA.

Ikusirik Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu saileko Ingurumena eta Lurralde Antolamendu Sailburuaren 2007ko maiatzaren 14ko Agindua, non edateko ura hornitzeko sareak hobetzeko proiektuak egiteko diru-laguntzak ematen direna.

Ikusirik Larrualgo Udaleko ur-hornidura sarea zaharkituta dagoela eta berau berritzea beharrezkoa dela.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu saileko Ingurumena eta Lurralde Antolamendu Sailburuaren 2007ko maiatzaren 14ko Aginduaren babesean Larraulgo Ur-Hornidura sarea berritzeko dirulaguntza eskatzea.

HAMABIGARREN PUNTOA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK.**

Alkate-Lehendakariak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

- AMONARRIZ ITURGINTZA, S.L.	297,81 €
- EBA ERKIZIA BRION	3.333,00 €
- IBERDROLA	43,60 €
- IBERDROLA	217,08 €
- IBERDROLA	160,83 €
- IBERDROLA	88,38 €
- IBERDROLA	55,77 €
- IBERDROLA	106,48 €
- IBERDROLA	172,06 €
- MRW	30,24 €
- REPSOLGAS	8,31 €
- REPSOLGAS	136,28 €
- REPSOLGAS	31,59 €
- ARGITU	164,72 €
- FERRETERIA BARBE, S.L.	450,34 €
- IBERDROLA	143,63 €
- GSM	1.138,03 €
- IZFE, S.A.	371,20 €
- GRAFICAS ORIA, S.L.	139,20 €
- EBA ERKIZIA BRION	677,02 €
- KIROLZER	136,25 €
- JOXEAN ALTUAN	282,48 €
- GIPUZKOAKO URAK, S.A.	6.732,19 €
- LEX NOVA	49,92 €
- EUSKALTEL	62,50 €
- VODAFONE	75,84 €

- BABESA SUZAI, S.A.	126,86 €
- COMASA	85,10 €
- IBERDROLA	220,52 €
- TELEFONICA	0,70 €
- TELEFONICA	87,89 €
- TELEFONICA	15,98 €
- TELEFONICA	29,20 €
- TELEFONICA	19,03 €

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Aipaturiko fakturak, denera **15.690,03 Euro**tako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMAIRUGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK.

Udal Batzarrak presazko eta premiazko arrazoiak direla medio aho batez gai zerrendatik at dauden hurrengo gaiak eztabaidatzea erabakitzen du.

- *Gestion y Desarrollo Goiargi, S.L baltzuak Larraulgo AA.SS-etako 4.1 Exekuzio Unitateko a.10.4.1/1 etxebizitzaren lursailean igerileku aurrefabrikatu bat ezartzeko eskatutako obra baimena aztertzea.*

Ikusirik R. R. jaunak Gestion y Desarrollo Goiargi S.L baltzuaren izenean Larraulgo AA.SS-etako 4.1 Exekuzio Unitateko a.10.4.1/1 etxebizitzaren lursailean igerileku aurrefabrikatu bat ezartzeko baimena eskatu duela. Eskaerarekin batera lanen memoria eta aurrekontua aurkeztu dira.

Ikusirik Udaleko Aholkulari Teknikari den E. E. B. andreak luzaturiko aldeko txostena.

Bertaratuek, gaia aztertu ondoren, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Gestion y Desrrollo Goiargi, S.L baltzuari eskatutako obra baimena ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden ordentza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

- ***Larraulgo AA.SS-etako 2.1 exekuzio unitateko atzekaldeko lursailaren egoera aztertzea.***

Ikusirik Larraulgo AA.SS-etako 2.1 exekuzio unitateko atzekaldean kokaturiko lursailan eraikuntzako hondakin inerte batzuk jaurtiki eta lekua lautuz azaleraren itxura aldatu eta lurzati bat egokitu dela dagokion baimenik eskatu gabe.

Ikusirik lan horiek legeztatu egin behar direla.

Gaia azterturik, bertaratuek aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Udaleko Aholkulari Teknikaria den E. E. B. andreari aipatutako egoera legeztatzeke aplikagarria den legedi urbanistikoari buruzko txostena luzatzeko eskatzea.

BIGARRENA.- Lursailaren jabea den I. A. U. jaunari, luzaturiko txostenaren arabera eginiko lanak legeztatzeke eskaera eta dagokion dokumentazioa udaletxean aurkeztu dezan esatea.

- ***Larraulgo elizaren Zimenterio edo Eliz atariaren egoera aztertzea.***

Ikusirik Udaleko Aholkulari Teknikaria de E. E. B. andreak luzaturiko txostenaren arabera Elizaren Zimenterioa deiturikoa egoera oso txarrean aurkitzen dela.

Ikusirik eraikinak ez dituela gutxieneko segurtasun neurriak betetzen eta ondorioz pertsonentzat arriskutsua suertatua daitekeela.

Ikusirik Alkate jaunak adierazi duela Gotzaitegiarekin kontaktuan jarri eta egoera planteatu ondoren, Gotzaitegiak konpromezua hartu duela epe motz batean Zimenterioan obrak egiteko eta ondorioz, segurtasun neurri guztiak beteko direla.

Ikusirik Gotzaitegiari obrak hasi bitartean zimenterioa ixteko aukeraren berri eman zitzaiola eta ados agertu direla pertsonen segurtasuna bermatzeko beharrezko neurri bezala ikusten zutelarik.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Gotzaitegia elizako zimentarioaren konponketa lanak egiten hasi bitartean zimentarioa ixtea pertsonen segurtasuna bermatzeko.

HAMAL AUGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

Ez dira aurkeztu.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 23.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

Xabier Mujika

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

M^a Eugenia Muñoa Irureta